

## Intxaurrondo



# EBE udarako prest

**Aitor Navarro** |fno.: 943 288919|

Udaberria gainean dugu eta udarako prestaketak egi-ten hasteko garaia iritsi da. Zubiaurre kaleko Euskal Begiraleen Eskolak horretan dihardu, hasi da aurtengo udaleku irekiak antolatzen.

EBE 1989. urtean sortu zen. Zazpi langile ditu eta 20 bat kolaboratzaile. Andoni Otaegi EBeko zuzendaria da eta beraiena enpresa txikia dela esan digu. *“Enpresa txikia gara, baina ez txikienetakoa. Ilusioz beteta hasi ginen lanean eta oraindik ere gogotsu jarraitzen dugu. Gauzak errazago izango zirela iruditzen zitzaigun arren, ezin gara hexatu”.*

Begirale eskola honek argi zuen hasieratik euskara suspertzea eta gure hizkuntza indartzea izango zela bere helburuetako bat. Horretarako, euskaraz zekiten begiraleak hezitzen hasi ziren ikastaroen bitartez. Ohiko ikastaroak ematen dituzte, hots, begirale eta zuzendari ikastaroak.

Gaur egun lan arlo berean talde asko dabilta eta lehiakortasun handia dagoela adierazi du Otaegik. *“Lehia handia dago, handiegia. Hori dela eta, zurrumurruak zabaltzen dira udalekuak antolatzen dituzten enpresei buruz. Izen txarra ere hartu izan dute batzuek, eta bidegabekeri handiak egin izan dira”.*

## Lan neketsua

Haurrekin lan egitea alderdi on asko dituen arren, lan neketsua dela dio Otaegik. *“Gauza on asko ditu, esaterako, zenbait begiralek haurren gutunak jasotzen dituzte, udalekuan gustura ibili izanaren ordaina”.* Dena den, haurrak zaintzea ardura handiko lana da eta noiz edo noiz ezbehar bat edo beste ere gertatu ohi da. *“Behin saskibaloi saskia buru gainera erori zitzaion haur bati eta zauri handia eragin zion. Dena den, ez zen ezer larria izan”.* Kontuak kontu, makina bat haur ibiliko da EBekin uda partean.

## Añorga

# Añorga Txiki ilunpetan

Aste honetan ere argia joan zaigu Añorga Txikin. Oraingoan ekaitzaren ondorioz izan da, baina ez da auzoan argirik gabe geratzen garen lehen aldia. Makina bat aldiz gertatu zaigu hori. Izan ere, auzora elektrizitatea ekartzen duen postea ez dago oso leku txukunean.

**Lierni Otamendi** |fno.: 943 363436|

Orain hiru bat aste, 06.00etan, argia joan zitzaigun Añorga Txikin. Lauzpabost orduz izan ginen argirik gabe, eta denbora tarte horretan, mundu honetan esan eta entzun daitezkeen madarika-zio mota guztiak entzun ahal izan genituen auzokoen ahotik, batez ere bertan lan egiten dutenen ahotik, beraien eguneroko lana bete ezinik baizebiltzan. Iberdrolakoak lanean ari omen zirela eta berehala konponduko omen zutela jakin genuen. Baina, egia esan, kosta zitzaien. Izan ere, auzora elektrizitatea ekartzen duen postea sasi artean dago, eta gau horretan izandako haizetea zela eta, zuhaitz bat kable gainera erori zen. A ze komeriak bertara iristeko! Sasiak moztu eta bidea ireki behar izan zuten.

Hortik aurrera, Iberdrolara deitu genuen, poste horren inguruan ez ote zuen biderik

egon behar galdezka, gainera eror zitezkeen edozer ingurutik kentzeko. Iberdrolan adierazi zigutenez, indar gutxi duten posteez ez dute segurtasun araurik bete behar. Horrez gain, mota horretako posterik ez zutela jartzen esan ziguten eta poste hori beraiena ez zela, Eusko Tren enpresarena baizik.

Bertan ere galdetu egin dugu, eta beraiek hemen ez dutela posterik adierazi digute.

Norena ote da, beraz, Añorga Txiki argirik gabe geratzearen ardura? Zer gerta daiteke udan, lehorre garaian, zuhaitz bat kable gainera erori eta sua pizten bada?

